

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen dekretua onetsi dute Tokiko Entitateek

Tokiko Entitateek egindako ekarpenak jaso ditu Gobernuak atzoko bilera eta gero

Ostirala, 2017.eko apirilak 28

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioan bildutako Tokiko Entitateek dekretuaren aldeko irizpena eman zuten apirilaren 27an egin zen Toki Araubideko Foru Batzordearen bilkuran.

Proiektua, prozesu parte-hartzaileen ostean hiritarrek egindako ekarpenekin, maiatzaren 9an aurkeztuko dio Gobernuak Euskararen Nafar Kontseiluari. Horren ondoren, osoko bilkuran onartuko du gobernuak, Nafarroako Kontseiluari igortzeko.

Nafarroako Administrazioaren eta Tokiko administrazioaren arteko lankidetzarako Erakunde aholku emailearen bilkuran, “dekretuaren helburua hiritarrei administrazioaren aurrean euskara erabiltzeko eskubidea bermatzea baino ez dela” azaldu zuen Oloko kontseilariak, beti ere zonifikazioan ezarritakoaren arabera.

Bere ostean, dekretuan jaso diren Tokiko Entitateen ekarpenak azaldu zituen Euskarabideko zuzendari kudeatzailea den Mikel Arregik, hauek azaldutako zalantzak argitu ostean.